

# PROBA ESPEZIFIKOA

2015eko PROBA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

---

### Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete  
Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri  
Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du

1. Egin iruzkin bat aforismo hauen esanahiari buruz:

“Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”

“Gerra da gauza guztien aita”

- Zer filosoforenak dira?

- Zer esan nahi dute?

2. Adierazi zer gertaera izan ziren erabakigarrienak Platonen biografian.

3. Adierazi, erantzuna arrazoituz, ea zuzenak ala okerrak diren Aristotelesi buruzko baieztapen hauek:

- Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean ardazten du bere interesa.
- Esentziak mundu sentikorretik bereiz existi daitezke.

4. Zerrendatu San Agustinek besarkatu zituen pentsamendu-korronteak, eta nabarmendu zer eragin izan zuten haren berezko filosofiaren lanketan.

5. Azaldu eta aztertu zer egitura duten San Tomas Akinokoak Jainkoaren existentzia frogatzeko erabilitako argudioek.

6. Zerrendatu eta definitu Descartesen metodoaren parteak.

7. Zerrendatu eta laburtu Kantengan eragina izan zuten autore edo korronte nagusien ezaugarriak.

8. Zuzen erlazionatu Marxengan eragina izan zuten autore eta korronteei buruzko bi datu-zutabe hauek:

- |               |                        |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Anarkismoa             |
| • Feuerbach   | Sozialismo utopikoa    |
| • Adam Smith  | Ezker hegeldarra       |
| • Proudhon    | Liberalismo ekonomikoa |



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

## ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA

### 1. Erantzuna

Bi aforismoak Heraklitorenak dira, eta hau litzateke haien esanahia:

- “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean” esaldiak naturak etengabe jasaten duen aldaketa islatzen du; funtsean, tentsioa eta dinamismoa. Naturan dena ari da etengabe aldatzen, ibai bateko ur-lasterra bezala, non urak etengabe ari baitira berritzen. Ibaiko ur-lasterra da Heraklitoren filosofiaren sinboloa: “Panta rei: dena dabil, ezer ez dago geldirik”.
- “Gerra da gauza guztien aita”: naturak jasaten duen etengabeko dinamismo hori etengabe lehian dabiltzan aurkarien arteko borrokak azaltzen du: Hotza – beroa, gaztetasuna – zahartasuna, eguna – gaua. Aurkarien arteko borroka edo gerra horrek sortzen du naturaren dinamismoa azalduko lukeen tentsioa. Aurkarien edo antitesien arteko borroka hori bere metodo dialektikoan jaso zuen Hegelek. Marxek, gero, klase-borroka historiaren motorra dela baieztatu zuen. Ikus daitekeenez, luzea da Heraklitoren itzala.

### 2. Erantzuna

Hauek lirateke eraginik handieneko gertaera historikoak:

- Peloponesoko gerrak. Gerra horiek Atenas demokratikoaren eta Esparta aristokratikoaren arteko borroka baino gehiago izan ziren, bizitza eta gizartea ulertzeko modu desberdin bat adierazi baitzuten.
- Sokratesen heriotza. Heriotzara kondenatu zuen, modu bidegabean —Platonek bere "Sokratesen apologia" ospetsuan adierazi zuen moduan—, 30 tiranoen gobernuaren parentesi laburraren ondoren ezarri berria zen demokraziak (K.a. 399). Sokrates maisu miragarriaren galerak eragin itzela izan zuen Platon gaztearengan.

### 3. Erantzuna

- Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean ardazten du bere interesa. **Gezurra**. Inguratzen gaituen mundu sentikor eta ukigarrian ditu begiak iltzatuak Aristotelesek: Rafaelen *Atenasko eskola* margolan famatuan, Platonek, hatzarekin, gorantz seinalatzen du; Aristotelesek, berriz, beherantz. Platonek mundu ideal abstraktuan ardazten du bere interesa. Aristotelesek mundu konkretu eta sentikorrean finkatzen du begirada. Platonen filosofia ideietatik mundu sentikorrera zihoan, zeina mundu idealaren kopia akastun bat baita. Aristotelesek justu alderantziz dihardu: mundu konkretu eta sentikorretik abiatuta, abstraktura iristen da, ideietara.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

- Esentziak mundu sentikorretik bereiz existi daitezke. **Gezurra.** Gorago adierazitakotik, ondorioztatzen da esentziak ezin direla existitu mundu sentikorretik bereiz. Aristotelesen ustez, gauza baten esentzia ezin da existitu gauza horretatik beretik bereiz.

#### 4. Erantzuna

Etengabe egiaren bila, filosofia-korronte hauetako kide izan zen San Agustin:

- Manikeismoa: Dualismo hertsia bat aldeztu zuten: ongia eta gaizkia. Gaizkiaren arazoak biziki kezkatuta zegoen, eta korronte horretan aurkitu uste zuten haren azalpena. Manikeismo hori beti ageri da, nola edo hala, San Agustinen pentsamenduan.
- Akademiaren eszeptizismoa. Gero, kontra egin zuten eszeptizismoaren tesiei, eta egiaren existentzia baieztatu zuten esaldi ospetsu honekin: "Si fallor, sum": Huts egiten badut, banaiz.
- Plotinoren neoplatonismoa. Korronte horren eragina funtsezkoa izan zen gaizkiaren arazoari erantzun filosofiko bat emateko: Iluntasuna argi falta besterik ez da; gaizkia ongi falta besterik ez da.
- Azkenik, kristautasunera aldatzea, Milango apezpiku San Ambrosioren sermoien eraginez, neurri batean.

#### 5. Erantzuna

- **Abiapuntua** esperientziaren **gertakari bat** edo datu enpiriko bat da: mugimenduaren existentzia.
- **Kausalitatearen printzipioa aplikatzen da**: ondorio orok kausa bat du. Mugimendu orok kausa bat izan behar du. Beste batek mugitzen du mugitzen den oro.
- Aristotelesen teoriari jarraiki, **onartzen da prozesu infinituak ezinezkoak direla**. Eragileen segida infinitua ezinezkoa da.
- Behatutako **datu enpirikoaren kausa gisa iristen da Jainkoagana**: bera mugitua gertatu gabe gainerakoak mugitzen dituen izate batengana iritsi behar dugu. Hala, onartzen dugu Jainkoa existitzen dela lehenbiziko eragile mugiezin gisa.
- Egitura hori bera aplikatzen du Tomas Akinokoak beste arrazoibideetan: kausa lehenaren arrazoibidean, kontingentziarenean, perfekzio-mailenean eta munduko ordenarenean.

#### 6. Erantzuna

Descartes ustez, metodoa da zalantzatik ateratzen gaituen eta ziurtasunera garamatzen bidea. Filosofiak segurtasuna emango dion metodo egoki bat behar du; horregatik, Descartsek filosofia sartzen du mundu matematikoan, giza arrazoimenari egia-irizpide erabateko eta ukaezin bat ematearren.

Hauek lirarteke haren oinarritzko arauak:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

- **Ebidentzia:** Ez onartzea zalantzazkoa den ezer ere. Gure gogamenera erabat argi eta bereiz aurkezten dena besterik ez onartzea.
- **Analisia:** Zatiketa adierazten du. Ideia konplexuak ideia sinpletan zatitu behar dira, argitasuna eta ebidentzia lortzeko eta errorea saihesteko.
- **Sintesia:** Kontzeptu konposatuak ideia sinple eta intuitibo bihurtu ditugunean, berriro osatu beharko ditugu sintesiaren bidez. Intuizio partzialen kate bat eratu behar da, emaitza gisa ziurtasun nabari bat, errorerik gabekoa, izango duena.
- **Zerrendapena:** Metodoaren parte lagungarria da: prozesu osoa berrikustea da, ezer ez dela falta ziurtatzeko.

## 7. Erantzuna

Hauek dira Kant-engan eragina izan zuten eta haren pentsamenduaren aldiak markatu zituzten autore eta korronteak:

- Leibnizen arrazionalismoa, Wolff metafisikako irakaslearen bidez ezagutu zuena. Egia arrazoimenak bakarrik ezagut dezake, esperientziatik at. Hala diote Leibnizen tesiek, eta haiekin oso kritikoa agertu zen Kant.
- Haren hezkuntza pietista hertsia: Pietismoa protestantismoaren barneko mugimendu erlijioso bat zen, kristautasunaren berrikuntza nahi zuena eta maila moraleko betebeharrak oso zorrotzak zituen. Haren arrastoak geratu ziren Kant-engan, moralari (*Arrazoimen praktikokoaren kritika*) eta erlijioari dagokienez, erritu eta praktika erlijiosoak arbuia baitzuten.
- Haren logikako irakaslea, Knutzen; berak bideratu zuen Newtonen mekanikaren eta matematika, fisika eta metafisikaren azterketara.
- Humeren enpirismoa eta Rossearen pentsamendua. Horrek aukera eman zion Frantziako Ilustrazioaren idealak ezagutzeko, eta oso gogoko gertatu zitzaizkion. Kant-ek dio Hume irakurritz "atera zela bere amets dogmatikotik". Hau da, Hume irakurrita utzi zuen bertan behera arrazionalismoa, eta posizio antimetafisikoan oinarritutako aldi kritikoa eman zion hasiera.

## 8. Erantzuna

- |               |                        |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Sozialismo utopikoa    |
| • Feuerbach   | Ezker hegaldarra       |
| • Adam Smith  | Liberalismo ekonomikoa |
| • Proudhon    | Anarkismoa             |



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS*

*MAYO 2015*

***HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA***

---

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA ADIERAZLEA</b>
1	1.5
2	2.1
3	3.2
4	4.3
5	5.5
6	6.4
7	7.2
8	8.3